

ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA

Areson, 2016ko urtarrilaren 20an, arratsaldeko 19:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivite Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2016/01/20

Ordua: 19:00

Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Ur Alguero Chivite

M^a Asunción Arratibel Onsalo

Mikel Baraibar Garmendia

Eden Alguero Chivite

Jon Gurrutxaga Etxeberria

Xabier Domingo Zubillaga Uranga

BERTARATU EZ DIRENAK

Javi Belaunzaran Mariezcurrena

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

1.- Aurreko aktaren onarpena.

- 2.- 2014ko kontuen onespina.
- 3.- 2016ko tasa eta prezio publikoen onespina.
- 4.- Aresoko udaleko eta Hirigintza Elkarteko 2016ko aurrekontuen eta oinarrien hasierako onespina.
- 5.-2016ko Plantila organikoaren hasierako onespina.
- 6.- Idazkaria eta zerbitzu anitzeko langilearen eskaera familia laguntza onartzearena.
- 7.- Hirigintzako udal plana garatu eta berria egiteko espediente irekiaeraren akordioa hartzea.
- 8.- Kirol Mankomunitateari egin beharreko ekarpen bereziaren informazio ematea.
- 9.- Mozioa: “Udalaren mozioa, Nafarroako Gobernuari drogamenpekotasunari buruzko programei eta udal planei eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari zuzendutako kontu-sailak indartu ditzan eskatzeko”.
- 10.- Alkate Ebazpenen berrespena.
- 11.- Eskaera eta galderak.
- 12.- Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkate jaunak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 19:10 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutakoen quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Aurreko batzarretako akta.

Aurreko batzarreko akta alkatearengatik irakurria da eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

- 1.1.- 2015ko azaroaren 4ko ohiko batzarreko akta onartzea.

2.- 2014ko kontuen onespina

Ur Alguerok 2014ko kontuen berri ematen du eta honako laburpena egiten du:

2014 KONTUEN LABURPENA

DIRUSARRERA ARRUNTAK INGRESOS CORRIENTES	1, 2, 3, 4, 5 KAPITULUAK	259.385,68€
FUNTZIONAMENDU GASTUAK GASTOS DE FUNCIONAMIENTO	1, 2, 4 KAPITULUAK	225.579,93€
FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	3 eta 9 KAPITULUAK	22.249,93€
AURREZTUTAKO BRUTOA AHORRO BRUTO	+DIRUSARRERA ARRUNTA - GASTU ARRUNTAK	33.805,75€
AURREZTUTAKO GARBIA AHORRO NETO	+DIRUSARRERA ARRUNTAK GASTU ARRUNTAK -FINANTZA GASTUAK	11.555,82€
INBERTSIOAK	DIRUSARRERAK: 9.804,98€ GASTUAK: 48.160,02€	-38.355,04€
AURREKONTUAREN EMAITZA RESULTADO PRESUPUESTARIO	+AITORTUTAKO ESKUBIDE: 269.193,66€ - AITORTUTAKO BETEBEHARRAK: 300.181,88€	-30.988,22€
ALTXORTEGI SOBERAKINA REMANENTE DE TESORERIA	+KOB RATU GABEKO ESKUBIDEAK: 43.862,06€ -ORDAINDU GABEKO BETEBEHARRAK: 179.770,80€ +ALTXORTEGIKO FONDO LIKIDOAK: 498.182,39€	362.273,65€
ZORRA DEUDA VIVA	RURAL KUTXAKO MAILEGUA: 265.523,23 € HIRIGINTZA ELKARTEKO MAILEGUA: 1.360.870,50€	1.626.393,70€

Azpimarratzen duena zera da, aurrekontuaren emaitza negatiboa dela jasotako diru sarrerak gastatutakoa baino gutxiagoa izan delako; eta inbertsioetan diru laguntzetan jasotakoa baino gehiago inbertitu izan dela. Altxortegi soberakinari dagokionez oso

errela ez dela azaltzen du, 179.770,80 euro ordaintzeke daudela agertzen baita eta horietatik 118.000,00 euro behintzat ordainduak daude BEZagatik.

Azalpenaren ondoren, denen adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- 2014. urteko ekitaldiari dagokion Aresoko udaleko eta Hirigintza Elkarteko Kontu Orokorraren aldeko txostena ematea, hasiera batean onartzea.

2.2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Toki Ogasunaren gaineko Foru Legearen 242.artikuluarekin bat eginik, espedientea jendaurrean egonen da hamabortz egunean, interesdunek aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

2.3.- Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, hasierako onespén hau behin betikoa bihurtuko da.

3.- 2016ko tasa eta prezio publikoen onspén.

Alkateak 2016ko urteari dagozkion tasa eta prezio publikoen nondik norakoak azaltzen ditu. Iazko urtearekin alderatuta Kontribuzioan eman dela soilik aldatuta, hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,25 izatetik %0,27 izatera pasa dela eta landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,73 izatetik %0,79 izatera pasa dela.

Behin tasa eta prezio publikoak aztertuta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.-Nafarroako Toki Ogasunein buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz 2016. Urteko karga tasa eta prezio publikoak onartzea.

1.-Karga-tasak, 2016. urtekoak.

1.1.-Kontribuzioa eta zergak:

Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,27.

Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,79.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (J.E.Z.): %1,4.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: %3,5.

Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga:

-5 urte bitarte: %2,2.

-10 urte bitarte: %2,1.

-15 urte bitarte: %2.

-20 urte bitarte: %2.

-Karga-tasa %10 izanen da.

1.2.-Tasak:

Saneamendua:

-45 euro gehiago, hirigunean dauden etxebizitza eta/edo instalazioentzat bakarrik.

-55 euro, hirigunetik kanpo dauden enpresentzat.

Ur hornidura:

1.-Hirigunean dauden etxebizitza eta abarrentzat: 45,14 euro.

2.-Kontagailua duten etxe eta instalazioetan, kontsumoaren arabera kobratuko da, eskala honekin bat:

Kontsumitutako 100 m³ bitarte: 0,41 euro/m³.

Kontsumitutako 100m³-tik 300 m³-ra bitarte: 0,61 euro/m³.

Kontsumitutako 300m³-tik gora: 0,81 euro/m³.

Gutxieneko kontsumoaren zenbatekoa: 60,20 euro.

Hargune berria instalatzeko tasa: 140 euro, gehi KPIa.

Hirigintzako agiriak tramitatzea:

1.-Hirigintzako agiriak tramitzeko prentsan argitaratu behar diren iragarkien kostua sustatzaileen kontura izanen da.

2.-Udal arkitektoaren txostena behar dutenak: 20 euro.

Konpultsak eta egiaztagiriak:

1.-Agiriak konpultsatzea, 0,50 euro.

2.-Ziurtagiriak:

2.1.-0,50 euro, 18 urtera bitartekoendako.

2.2.-Euro 1, 18 urtetik gorakoendako.

Pozoia sagu eta arratoientzat:

Etxebizitzako 2 kg baino gehiago kontsumitzen denean, 50 gramoko poltsa bakoitzeko 0,30 euro kobratuko dira.

Lehen aldiz erabiltzeko lizentziak: 150 euro.

Irekitzeko lizentzia: 150 euro.

Etixerako egurraren loteak:

1.-Mendi zaindariak egindako balorazioa izanen da haizeak botatako zuhaitzen aprobetxamendurako kanona ordaintzeko irizpidea.

2.-Egur lotea markatzearekin batean, Aresoko Udalak finkatuko du etxerako egurra aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko kanona. Langile espezializatu batek loteak markatu, zuhaitzak bota eta motozerraz zatitzeko kostuak hartuko dira kontuan, betiere behar bezala justifikatzen badira eta zuzenean loteei egozten ahal bazaizkie.

Bideen ordenantzako zehapenen araubidea:

Ordenantza honetako arau-haustek isunaren bidez zehatuko dira; isuna gehienez ere 150 eurokoa izanen da.

Nork bere borondatez ordaintzen ez badu, premiamendu bidez egingen da isunen diru-bilketa.

Gainera, bidea konpondu beharko da.

1.3.-Prezio publikoak:

WI-FI zerbitzuaren prezio publikoa:

1.-Aresoko Udalaren WI-FI sarean erregistratuak dauden zergadun guztiei urtean 76,65 euro kobratuko zaizkie BEZa barne zerbitzu horren aldera.

2.-Erabaki honek 2016. urteko urtarrilaren batean hartuko du indarra.

4.- Aresoko udaleko eta Hirigintza Elkarteko 2016ko aurrekontuen eta oinarrien hasierako onespina.

Alkateak azaltzen du aurreko urteekin alderatuta aurten aurrekontuko partidak are desglosatuagoak daudela aurrekontua arautzeko lege aldaketak horrela behartzen duelako.

Inbertsioei dagokienez baso lanak, Elusederreko hariztiaren errekuerazioa, oinezkoen bidearen bigarren zatia egitea eta argiteri publikoaren bonbillak aldatzea aurreikusten direla.

Diru sarrerei dagokienez, azken hiru urte hauetan Kirol Mankomunitatean emandako idazkari zerbitzuengatik jaso gabeko oinarritzko soldataren %10ko kopurua jasotzea aurre ikusten dela; kontribuzioan aplikatu beharreko portzentajea emandako aldaketak hiru mila euro inguru gehiago jasotzea suposatuko duela azpimarratzen du; baita toki ogasuneko funtsetik %2a gehiago jasoko dela ere.

Hirigintza elkarteko aurrekontuei dagokienez, iazkoa bezalakoa izanen dela aurre ikusten dela esaten du. Argiteri publikoaren titularitate aldaketa egingen dela eta horrek zerbait gutxituko dituela gastuak, baina gainerakoan aldaketarik ez dela aurre ikusten adierazten du.

Aurrekontu espedientea aztertuta, bertaratutako guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

4.1.- Aurrekontu orokorra eta berau gauzatzeko oinarriak, baita Aresoko Udaleko Hirigintza Elkarteko S.A aurrekontua ere hasiera batean onestea.

4.2.- Jendaurrean egonen dira hamabortz egun baliodunean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina.

4.3.- Jendaurrean egoteko aldia iraganik, aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onetsizat hartuko da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legearen 202 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5.- 2016ko Plantila organikoaren hasierako onespena.

Aresoko udaleko alkateak platila bere osotasunea irakurtzen du.

Hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/2008 Foru Legearen 236. artikuluan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 19 eta 20. artikuluetan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa bete dadin.

LANPOSTUEN ZERRENDA

Idazkari/kontu-hartzailea: A maila. Lanaldia: osoa. Sarbidea: O.L. Betebehar berezia: euskaraz jakitea EGA/C1. Lanpostuko osagarria: %30,90. Egoera administratiboa: hutsik.

Zerbitzu anitzetako enplegatua. Lanpostu kopurua: 1. Maila: E. Lanaldia: osoa. Sarbidea: O.L. Baldintza berezia: euskaraz jakitea, B2/A2 (*). Mailako osagarria: %15. Lanpostuko osagarria: %43,69. Administrazio egoera: jardunean.

(*)B2 Ahozkoa; A2 Idatzizkoa.

LANGILEEN ZERRENDA

FUNTZIONARIO IZENEN ZERRENDA

Zerbitzu anitzetako enplegatua: Jesús Javier Nieto Baranda. E maila. 1. gradua. Lanpostuko osagarria, %15 Mailako osagarria: %43,69. Administrazio egoera: jardunean. Sarrera eguna: 2004ko uztailearen 1a.

ADMINISTRATIO ARAUBIDEKO BITARTE BATERAKO LANGILEEN IZENEN ZERRENDA

Idazkaritza: Ione Miren Lazkoz Maiza. A maila. Lanpostuko osagarria: %30,90. Egoera: jardunean. Sarrera eguna: 2007ko urriaren 10ean.

Guzti hau aintzat hartuta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

5.1.- Aresoko 2016. Urterako plantila organikoa hasiera batean onartzea.

5.2.- Hasiera batean onetsitako plantilla organikoa jendaurrean egonen da Udal Idazkaritzan hamabost egun baliioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean iragarkia paratu ondotik, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

5.3.- Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, delako plantilla organikoa behin betikoz onetsitatzeko joko da, jendaurreko epea iragandakoan.

6.- Idazkaria eta zerbitzu anitzeko langilearen eskaera familia laguntza onartzearena.

2015ko abenduaren 29an Aresoko udaleko idazkariak eta zerbitzu anitzeko langileak Aresoko Alkateari zuzenduta famili laguntza jasotzeko eskubidearen inguruko eskaera egin ziotela adierazten du Ur Alguerok.

Famili laguntza onartzeko eskaerarekin batera lau urteko atzera eraginkortasunarekin aurrezagutzako eskaera egin zuten ere.

Famili laguntza onartzeak ekonomikoki udalari 1.216,32 euro suposatuko dizkio eta onartutako aurrekontuan partida hau barneratua dago. Barneratu ez dena lau urteko atzerapenak ordaintzeko kantitatea da.

Eskaerak aztertuta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

6.1.- Aresoko udaleko idazkariari eta zerbitzu anitzeko langileari famili laguntza onartzea.

6.2.- Lau urteko atzera eraginkortasunarekin aplikatzeko puntuari dagokionez, horrela bada horrela onartzea, baina aldez aurretik Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen federazioan kontsulta egitea lau urteko atzerapenarekin jasotzea dagokien jakiteko eta erantzuna jasotzerakoan beharrezkoa den erabakia hartzeko.

6.3.- Interesatuei jakinaraztea beren ezagutzarako.

7. Hirigintzako udal plana garatu eta berria egiteko espediente irekiaeraren akordioa hartzea.

35/02 Foru Legeko, Lurralde antolamendu eta hirigintzari dagokiona, 51, 65, 72 eta 77. artikuluetan eta Aresoko Udaleko hirigintzan tekniko den David Gomezen txostenean oinarrituta, zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

7.1.- Hirigintzako udal plana berrikusi, garatu eta berria egiteko espedientea irekitzeko akordioa adostea.

8. Kirol Mankomunitateari egin beharreko ekarpen bereziaren informazio ematea

Jon Gurrutzagak, Kirol Makomunitatean ordezkaria den zinegotziak, Kirol mankomunitatean 6.000 euroko zorra kitatu ahal izateko partadie diren udalek ekarpen berezi bat egiteko akosrdioa hartu zutela jakinarzten du eta banaketa biztanleen kopuruaren arabera egiten denez, Aresori 443,09 euroko ekarpena egitea dagokiola.

9. Mozioak: “Udalaren mozioa, Nafarroako Gobernuari drogamenpekotasunari buruzko programei eta udal planei eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari zuzendutako kontu-sailak indartu ditzan eskatzeko”.

Aresoko Udalaren mozioa, Nafarroako Gobernuari drogamenpekotasunari buruzko programei eta udal planei eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari zuzendutako kontu-sailak indartu ditzan eskatzeko.

Aresoko Udalak bere kezkarik sakonena agertu nahi du gure udalen eta euren gizarte zerbitzuen bitartez gauzatzen diren gizarte eta osasun arloetako programek legealdi honetan zehar jasan duten inoiz ez bezalako murrizketen aurrean.

Hainbat programari buruz ari gara, Nafarroako gizartean eragin zabala izan dutenak, horren sentibera den drogamenpekotasunen esparruan. Gure ustez esparru honi ematen zaizkion laguntzak indartzen jarraitu beharra dago, hauen eta bertan lanean dihardutenen bitartez egiten den gizarte lana handia delako.

Drogamenpekotasunen arloko udal planak, prebentzio komunitarioko planak, osasunaren prebentzioaren eta sustapenaren programak, jaibusa, bitartekari komunitarioen formakuntza, alkohola eta beste drogei buruzko sentsibilizazio eta prebentzio programak, interbentzioa eta koordinazioa hobetzeko sare lanaren abiatzea, gazteoi zuzendutako aisialdi arloko ekintzen antolatzea, ikastetxe esparruan irakaslegoaren formakuntza edota drogomenpekotasunen prebentzioa bezalako ekintzak... programa hauek guztiak beharrezkoak dira, eta are gehiago, bizi dugun krisi egoera honetan, non gizarte-bazterketa eta gizarte-ezberdintasunak neurrigabe hazi diren.

Ulertezina da 2011 eta 2013 urteen artean drogamenpekotasunen arloko programek jasotzen zuten diru-laguntzaren %43,21 galdu izana; era berean ulertezina da prebentzio komunitarioko programek, 2011 eta 2015 urteen artean, jasotzen zuten %39,41 galdu izana.

Funtsezkoa da guretzat egoera hau iraultzea, programa hauek behar duten egonkortasuna izan dezaten, bizi dugun egoera ekonomiko eta politikoa edozein delarik ere.

Gizarte-lanabes oso garrantzitsuez ari gara, Nafarroako biztanleen ia %80ri estaldura ematen diotenak; eta murrizketak murrizketa, programa hauetan lanean diharduten profesional eta udalen lanari esker mantendu direnak; izan ere, ahaleginak egin dituzte, zerbitzu hauek eskaintzen jarraitzeko, nahiz eta emandako murrizketa itzelak izan diren.

Baina argi dago programa hauek aurrera eramaten dituzten profesionalen eta udalen ahalegin honek ezin duela denboran luze iraun egoera iraultzen ez bada eta kontu-sail hauek muga arrazoizko batera diruz hornitzen ez baditugu, proiektuei eta Foru Komunitateko udal ezberdinetan hauen arduradun diren langileei egonkortasuna eman ahal izateko.

Aresoko udalean uste dugu jarduera hauek oso garrantzitsuak direla. Plan eta programa ezberdinek familiarren, adinez txikien, nerabeen eta gazteen arloetan izan duten eraginari buruzko datuek argi eta garbi hitz egiten dute. Adibide bat jartzearren, 2014an, drogamenpekotasunaren arloko 45 udal planekin, familia arloan izan zuten eragina hauex da: 1.452 esku-hartze burutu ziren eta hauetan 13.948 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren. Eta udaletako drogamenpekotasunaren planek adinez

txikien, nerabeen eta gazteen arloetan izan zuten eragina aztertzen badugu, hauxe da emaitza: drogamenpekotasunaren 45 udal planetan 3.684 esku-hartze izan ziren eta hauetan 99.242 pertsona inguruk hartu zuten parte.

Horregatik guztiagatik eta jakitun garai hauetan bizi dugun egoera ekonomikoa oso zaila dela, hau da Aresoko Udalak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartu ahal izateko aurkezten duen

Ebazpen Proposamena

Aresoko Udalak Nafarroako Gobernua premiatzen du drogamenpekotasunari buruzko programei eta udal planei eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari zuzendutako kontu-sailak indartu ditzan; halako moldez, datorren legealdian programa horietarako Nafarroako Aurrekontu Orokorren baitan aurreikusitako zenbatekoak eskuratu ahal ditzagun, erreferentziatzat gutxienez 2011. urtekoak hartuta.

Aresoko Udalak programa hauetan guztietan profesionalek egiten duten lana babestu eta Nafarroako Gobernua premiatzen du, administrazio publikoa den heinean populazioak zerbitzu publiko kalitatezkoak jasotzen jarrai dezalako erantzukizuna mantentzen dezan.

10.- Alkate Ebazpenen berrespena.

Alkateak azken boladan emandako ebazpenen berri ematen du eta zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

8.1.-57/2015-3/2016 Alkate Ebazpenak berrestea.

9.-Eskaera eta galderak.

10.- Denetarik.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 20:50 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

